KULTURA SAILA

Zk-266

397/1998 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Bilbaoko Udal Alondegiaren eraikina, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz kalifikatzeko ezartzen dena.

1989ko urtarrilaren 18ko Aginduaren bitartez (EHAAko otsailaren 9ko 27. zkan argitaratua, martxoaren 1eko 41. zkan zuzendua eta baita EBOren otsailaren 28ko 50. zkan, apirilaren 4an zuzenduz 80. zkan.), Bilbaoko Udal Alondegia Kultura aldetik Ogasun Interesgarri modura, Monumento aldarrikatzeko espedientea hasitzat ematen zuen.

Euskal Autonomia Erkidegoak kultura ondareari dagokion erantzukizun osoa hartu zuen bere gain, Konstituzioaren 148.1.16. atalari jarraituz eta Autonomi Estatuaren 10.19. atalaren arabera. Era berean, ondare hori esportaziotik eta espoliaziotik babesteko Estatuak ezarritako arauak eta betebeharrak errespetatzeko konpromezua ere hartu zuen, irailaren 26ko 3068/1980 Errege Dekretuaren arabera.

Kultura Ondarearen alorrean zeukan aginpideaz baliatuz, Euskal Kultur Ondarearen Legea onartu zen, uztailaren 3ko 7/1990 Legea. Lege horren Xedapen Gehigarrietatik Lehenak ezartzen du aurreko legearen arabera Interes Kulturaleko Ondasuntzat deklaratutakoak, Kalifikatutako Kultura Ondasun izatera pasako direla zuzenean. Bestalde, Bigarren Aldi Baterako Erabakiak Lege hau indarrean jarri baino lehen hasiera emandako kultur interesgarritasuneko ondasun aldarrikapenei dagozkien izapidetza eta ondorioak Lege horrek adierazitakora bideratu beharko direla dio.

7/1990, Legearen 12. atalean xedatuaren arabera, ordea, lehen paragrafoan aipatutako espediente hasierak ez ditu egun ondasun kalifikatuen espedienteek bete beharrekoak diren baldintzak betetzen.

Gauzak horrela, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 1998ko urriaren 1eko Erabakiaren bidez, urriaren 13ko 194. zk. EHAAn eta 1998ko urriaren 20ko 200. zk. BAOn argitaratua, Euskal Kultur Ondarearen Legeari Bilbaoko Udal Alondegiaren eraikina Sailkatutako kultura ondasun izendapenaren egokitzeko jendaurreko epe bat ematea bultzatzen da, epe hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita 20 egun baliodunetakoa izanik. Espedientearen izapidetza hau, 7/1990, Legearen 12. atalak ezartzen dituen baldintzak betetzeko burutzen da eta haren izapideketan bete beharreko urrats guztiak betetzeko, horri buruzko informazioa jendaurrean jarri eta interesatuei entzuteko aukera emanaz.

DEPARTAMENTO DE CULTURA

N°-266

DECRETO 397/1998, de 22 de diciembre, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, el edificio de la Alhóndiga Municipal de Bilbao.

Mediante Resolución de 18 de enero de 1989 (publicado en el BOPV n.º 27, de 9 de febrero, con correcciones en el n.º 41 de 1 de marzo y en el BOE n.º 50 de 28 de febrero de 1989, con correcciones en el n.º 80 de 4 de abril), se acuerda tener por incoado expediente de declaración de Monumento como Bien de Interés Cultural a favor de la Alhóndiga Municipal de Bilbao.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16. de la Constitución y a tenor del artículo 10.19. del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, así como el cumplimiento de las normas y de las obligaciones que estableció el Estado para la defensa del mismo contra la exportación y la expoliación mediante el Real Decreto 3068/1980, de 26 de septiembre.

En ejercicio de la competencia exclusiva asumida en la materia de Patrimonio Cultural, se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco. La Disposición Adicional Primera establece expresamente que los Bienes declarados de Interés Cultural conforme a la legislación anterior, pasan directamente a considerarse Bienes Culturales Calificados. Por otro lado, la Disposición Transitoria Segunda, a su vez, establece que la tramitación y efectos de los expedientes de declaración de bienes de interés cultural incoados con anterioridad a la entrada en vigor de dicha Ley quedarán sometidos a lo dispuesto por la misma.

La incoación mencionada en el primer párrafo, no obstante, no contiene los requisitos que se establece que han de tener los expedientes correspondientes a los bienes calificados según lo dispuesto en el artículo 12 de la Ley 7/1990, del Patrimonio Cultural Vasco.

Así, mediante Resolución de 1 de octubre de 1998, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, publicada en el BOPV n.º 194, de 13 de octubre, y en el BOB n.º 200, de 20 de octubre de 1998, se promueve la apertura de un período de información pública de 20 días hábiles a contar desde su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, para la adaptación del expediente incoado de Declaración de Bien de Interés Cultural del edificio de la Alhóndiga Municipal de Bilbao a la mencionada Ley de Patrimonio Cultural Vasco. Se realiza este trámite con el fin de dotarlo de los requisitos que establece el artículo 12 de la Ley 7/1990, sometiendo el mismo a los trámites de información pública y de audiencia a los interesados, a fin de que se de a conocer el expediente y se presenten cuantas alegaciones se estimen oportunas.

Aurreko izapidetzak betetzearren, Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública/Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkartea eta Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro/Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak egindako alegazio idatzi banari eman zaio sarrera. Idatzi hauetatik lehena indarreango arauteriak ezarritako epearen barruan erregistratu zen izapidetzatan aurrera jarraitzeko onartuz. Bigarren idatziaren aurkezpena, ordea, epez kanpokoa izan zen lehen aipatutako 1998ko urriaren 1eko Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak horretarako ezarritako epea gainditurik burutu baitzen, ondorioz, izapidetzatan aurrera jarraitzeko ez onartuz, 30/1992, azaroaren 26ko Herri Administrazioko Lege Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio-Jardunbideari buruzko Legearen 38. atalean eta II. atalburuko IV. izenburuan ezarritako amaiera eta epeak bete beharraren xedapenen arabera.

Izapidetzatan aurrera jarraitzeko onartua izan den idatziaren edukinak bi alegazio ditu, lehenean espedientearen I. Eranskinaren mugaketa grafikoan eta III. Eranskinaren Babes Araupidearen bigarren artikuluan gauzatzen den Aplikazio-eremuaren arteko kontraesanak zuzentzea eskatzen delarik. Bestalde, bigarren alegazioak III. Eranskinean ezarritako babes araupideak II. Eranskinean egindako deskribapenean adierazitako baloreetako batzuk, eta horrela zehaztuak agertzen direnak, ez dituela errespetatzen dio. Alegazio horiek baloratu ondoren, lehena kontutan hartu da, ondorioz I. Eranskinaren fotolitoko errakuntza grafikoa zuzentzen delarik, baina bigarrena ez da kontutan hartu ebazpenaren zio moduan espedientean dauden txostenak finkatuz eta hauetara zuzenduz 30/1992, azaroaren 26ko Herri Administrazioko Lege Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbideari buruzko Legearen 89.5 atalean xedatuaren arabera.

Ondorioz, Kultur Ondarearen Legearen, hau da, uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 11.1. eta 12. ataletan ezarritakoari jarraituz eta Kultura Ondare Zentroko Zerbitzu Teknikoek egindako aldeko txostena ikusita, Kultura sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko abenduaren 22an egindako bilkuran gaia eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau,

XEDATU DUT:

1. atala.– Bilbaoko (Bizkaia) Udal Alondegiaren eraikina Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz kalifikatzea.

2. atala.– Bilbaoko Udal Alondegiaren eraikinaren Deskribapen formala egitea, kultura ondareari buruz indarrean dagoen legediaren ondorioetarako, Dekretu honen I. Eranskinean adierazitako moduan.

En cumplimiento de los anteriores trámites, se ha dado entrada a sendos escritos de alegaciones de idéntico contenido presentados por parte de la Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública / Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkartea y del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro / Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala. De dichos escritos el primero se registró en el plazo establecido al efecto en base a la normativa vigente admitiéndose a trámite. La presentación del segundo escrito se efectuó fuera del plazo establecido al efecto por la anteriormente mencionada Resolución de 1 de octubre de 1998 del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, no admitiéndose a trámite en virtud de lo dispuesto en el artículo 38 y de la obligatoriedad del cumplimiento de términos y plazos que se establece en el Capítulo II del Título IV de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

El contenido del escrito de alegaciones admitido a trámite consta de dos alegaciones, solicitando en la primera la subsanación de las contradicciones existentes en el expediente en su delimitación gráfica del Anexo I y en la referencia del ámbito de aplicación del Régimen de Protección que se realiza en el artículo segundo del Anexo III. Por otro lado, la segunda alegación hace referencia a que el régimen de protección establecido en el Anexo III no respeta en base a la descripción elaborada en el Anexo II alguno de los principales valores del inmueble, así determinados por ésta. Valoradas dichas alegaciones, la primera se ha tomado en consideración, por lo que se procede a la subsanación del subsiguiente error gráfico del fotolito del Anexo I, mientras que la segunda no se ha tomado en consideración en base a los informes obrantes en el expediente a los que se remite como motivación a la resolución, según lo dispuesto en el artículo 89.5 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En su virtud, de conformidad con lo establecido en los artículos 11.1. y 12 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, visto el informe favorable de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural, a propuesta de la Consejera de Cultura y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 22 de diciembre de 1998,

DISPONGO:

Artículo 1.– Declarar como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Monumento, el edificio de la Alhóndiga Municipal de Bilbao (Bizkaia).

Artículo 2.– Proceder a la Descripción formal del edificio de la Alhóndiga Municipal de Bilbao, a los efectos que la vigente legislación sobre Patrimonio Cultural prevé, en los términos expresados en el Anexo I del presente Decreto.

3. atala.– Dekretu honen II. Eranskinean ezarritako nondik norakoak ezartzea ondasunen Mugatzat, III. Eranskinean azaldutako arrazoiak direla eta.

4. atala.– Bilbaoko Udal Alondegia Babesteko Araudia onartzea, Dekretu honen III. Eranskinean ezarritakoaren arabera.

GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

Lehena.– Kultura Sailak Dekretu honen berri emango dio Jabego Erregistroari, Euskal Kultur Ondarearen Legearen, hau da, uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. atala errespetatuz, eta interesdunei, Bilbaoko Udalari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura, Hirigintza eta Ogasun Sailei ere jakinarazi.

Bigarrena.– Kultura Sailak honako hau eskatuko dio Bilbaoko Udalari: udal hirigintzako araudia egokitu eta moldatu dezala Hirigune Historikoa babesteko araudiaren arabera, Euskal Kultur Ondarearen Legearen, hau da, uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12.2. atalean ezarritakoa betetzeko.

Hirugarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da jende guztiak horren berri izan dezan.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Monumentu izendapenaz eragindako eremuan egindako lanak dagokion Foru Aldundi aginpidedunak onartu beharko ditu eta, Foru Aldundiak baimena eman ondoren, udalaren baimena lortu beharko da, Euskal Kultur Ondarearen Legearen, hau da, uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 29.1. atalak ezartzen duen moduan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.– Dekretu honen aurka, bide administratiboa amaitzen duenez, interesdunek errekurtso kontentzioso-administratiboa jar dezakete Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Kontentzioso-Administratibo salaren aurrean, hau bere azken argitaralpen dataren hurrengo egunetik kontatzen kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko abenduaren 22an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Kultura sailburua,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

Artículo 3.– Establecer, como Delimitación del Bien, la que consta en el Anexo II del presente Decreto, en base a las razones esgrimidas en el Anexo III.

Artículo 4.– Aprobar el Régimen de Protección del edificio de la Alhóndiga Municipal de Bilbao, que se establece en el Anexo III del presente Decreto.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– Por el Departamento de Cultura se comunicará el presente Decreto al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, y se notificará a los interesados y al Ayuntamiento de Bilbao y a los Departamentos de Cultura, de Urbanismo y de Hacienda de la Diputación Foral de Bizkaia.

Segunda.– Por el Departamento de Cultura se instará al Ayuntamiento de Bilbao para que proceda a la adecuación de la normativa urbanística municipal a las prescripciones del régimen de protección que se determina para dicho Monumento, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 12.2. de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

Tercera.– Publíquese el presente Decreto en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Bizkaia, para su general conocimiento.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Las intervenciones que deban realizarse sobre el área afectada por la Delimitación del Monumento quedarán sujetas a la autorización de los órganos competentes de la Diputación Foral afectada, la cual habrá de ser previa a la concesión de la licencia municipal, tal y como se establece en el artículo 29.1. de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra el presente Decreto, que agota la vía administrativa, podrán interponer los interesados recurso contencioso-administrativo ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco por plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

Segunda.– El presente Decreto surtirá efectos el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de diciembre de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

La Consejera de Cultura,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*



Euskal Kultur Ondarearen Zentrua — Centro de Patrimonio Cultural Vasco

Kultura Saila — Departamento de Cultura
Eusko Jaurlaritza — Gobierno Vasco

Lurraldea / Territorio: BIZKAIA	Planoa / Plano: BILBOKO ALHONDIGA ERAIKIN TZAREN DELIMITAZIOA: DELIMITACION DE LA ALHONDIGA MUNICIPAL DE BILBAO.
Udalerria / Municipio: BILBAO	
Data / Fecha: 1998.ko urriaren lean	Eskala / Escala. / Plano zk. / Plano nº.

I. ERANSKINA

BILBAOKO UDAL ALONDEGIAREN ERAIKINA MONUMENTU KALIFIKATU GISA MUGATZEA

a) Mugatzearen justifikazioa.

Bilbaoko Udal Alondegiaren babes-ingurunea mugatzearen arrazoia eraikina eta etxadia bat bera izatean datza. Izan ere, XIX. mendean hiri-garapeneko ereduaren, hau da, zabalunearen elementu bereizgarri nagusia etxadia da eta Bilbaoko zabalunean Alondegiaren eraikina da, hain zuzen ere, bere hedadura osoan, funtzioz eta formaz osotasun bateratua azaltzen duen bakarra, erabilera bakarra jasotzeko proiektatu zen eraikin bakarra da-eta. Ezaugarri honek eta eraikinaren kalitateak eta berezitasunak nortasun handia gaineratzen diote eraikinari eta, ingurunearen balioaz kanpo, berezko balioa duen elementu bihurtzen dute. Ez dira, beraz, beharrezkoak gertatzen hirigintza-antolamenduaren ohiko neurriez bestelako neurriak eraikuntza kontrolatzeko. Hori dela-eta, eraikin honen mugaketa babes-erregimen honen mugaketari lotu ahal izango zaio.

b) Planoa.

II. ERANSKINA

BILBAOKO UDAL ALONDEGIKO ERAIKINAREN DESKRIBAPENA

Bilbaoko Udal Alondegiak oso-osorik hartzen du hiriko zabaluneko etxadietako bat. Ricardo Bastidaren proiektuari jarraituz eraiki zen 1906 eta 1909 bitartean. Eraikin-ideia berri bat izan zen bai kokalekuari dagokionez -garai hartan sortzen ari zen hirigintza-trazadura berrian eraiki zen-, bai eraikuntzari dagokionez, egitura-teknika berriak erabili ziren-eta.

Eraikinak, diseinatzerakoan aintzat hartu ziren eskakizun funtzionalak betetzeaz gain, gainditu egiten du biltegi-izaera hutsa eta bat egiten du zabalunearen bilbean hiria osatzeko asmoa duen elementu gisa. Planteamendu bikoitz hau argi antzematen da eraikinean eta adierazitako bi alderdietako bakoitzari dagozkion elementuak identifika daitezke.

Barnealdeak konfigurazio garbia du eta bertan bat egiten dute, batetik, zabaluneko etxadi bati dagokion espazioaren osotasuna esperimentatzeko aukera erakargarriak eta, bestetik, egituraren zorroztasun geometrikoak, biltzen duen espazioaren ikuspegi nabarmenak eskaintzen ditu-eta. Hormigoi armatuko atariek (Bizkaian teknika honekin egindako lehen eraikinetako bat da) errepikatzen den modulazioa sortzen dute eta mo-

ANEXO I

DELIMITACIÓN DEL EDIFICIO DE LA ALHÓNDIGA MUNICIPAL DE BILBAO COMO MONUMENTO CALIFICADO

a) Justificación de la delimitación.

La delimitación del entorno de protección de la Alhóndiga Municipal de Bilbao se fundamenta en la valoración de la identificación entre edificio y manzana. Este es el único caso existente en el ensanche bilbaíno en el que la manzana, como elemento característico por excelencia del modelo de desarrollo de ciudad propuesto en el siglo XIX, el ensanche, presenta una resolución funcional y formal unitaria en toda su extensión, al corresponderse con un único edificio proyectado, a su vez, para acoger un único uso. Esta característica, unida a la reconocida calidad en la resolución del edificio y la singularidad del mismo, le confiere un fuerte carácter y lo convierte en un elemento de validez propia e independiente de consideraciones ambientales. No resultan precisas, por tanto, medidas especiales de control de la edificación circundante ajenas a las derivadas de la ordenación urbanística, por lo que es posible ceñir la delimitación del presente régimen de protección al edificio propiamente dicho.

b) Plano.

ANEXO II

DESCRIPCIÓN DEL EDIFICIO DE LA ALHÓNDIGA MUNICIPAL DE BILBAO

La Alhóndiga Municipal de Bilbao ocupa la totalidad de una de las manzanas del Ensanche de la Villa. Edificada entre 1906 y 1909 según proyecto de Ricardo Bastida, supone la afirmación de una nueva idea de edificio en cuanto a su implantación, al ubicarse sobre el nuevo trazado de ciudad que nacía en esa época, y en cuanto a su construcción, dado el empleo de técnicas novedosas desde el punto de vista estructural.

El edificio, además de cumplir los requerimientos de orden funcional para los que fue diseñado, transciende del mero carácter de almacén para insertarse en la trama del ensanche como un elemento con vocación de conformar ciudad. Esta dualidad del planteamiento es patente en el mismo, pudiéndose identificar los elementos que atienden a cada uno de los aspectos reseñados.

El interior presenta una configuración diáfana en la que se une el indudable atractivo de la posibilidad de experimentar la totalidad del espacio correspondiente a una manzana del ensanche, con el rigor geométrico que la estructura posee, el cual propicia notables percepciones del espacio por ella modulado. Los pórticos de hormigón armado, es uno de los primeros edificios realizados con esta técnica en Bizkaia, presentan una rei-

dulazio honek aldaketa txikiak ditu, zenbait behar funtzionalek hala eskatzen duten zonetan. Behe-oineko eta sotoko barneko zirkulazio-kaleak, osotasunaren argiztapenerako goiko forjen bao handiekin bertikalki lotuak, egitura-bilbearen haustura bihurtzen dira. Horrenbestez, eraikinaren funtsa eraikina proiektatzerakoan aintzat hartu zen erabilerarako egokitzapen funtzionalean oinarritzen da eta, hori dela-eta, eraikina baloratzerakoan funtsezkoa da alderdi hau aintzat hartzea. Bestalde, gaur egun dagoen egituraren garbitasunak eta sendotasunak zehaztu egiten dute eraikinaren barnealdearen espazioa.

Kanpoaldetik, berriz, eraikinak monumentu-itxura du zalantzarik gabe eta garrantzi handiko elementutzat hartzeko baldintza nabarmenak ditu. Izan ere, bere fatxaden berezitasuna garrantzi handikoa da eraikinak hiriaren gainerakoarekin duen erlazioan eta funtsezkoa ikuspegi desberdinetatik egin beharreko eraikinaren koalifikazioan. Eraikinaren kanpoko irudiaren balorazioa bi maila desberdinetatik egin behar da: batetik, ingurune hurbilarekin eta bere asentamenduaren materialtasunarekin duen lotura kontuan izanik eta, bestetik, zabaluneko eraikinen multzoaren barruan dagoen unitate eraiki gisa aintzat hartuta. Eraikinak bere programa funtzionalaren ondorioz bete beharrekoak azaltzen ditu eta bere irudiaren homogeneotasunean soluzio zehaztuak ikus daitezke perimetroaren osotasunean, inguratzen duten bideekiko topaguneetan, hauen kota altimetrikoen eta eraikinaren barrura sartzeko beharraren arabera. Ikuspegi orokorrago batetik, inguruko eraikinen artean (gehienak bizitegi-eraikinak(eraikin berezi gisa argi eta garbi identifikatzen duen irudi berezia du, alondegiaren fatxadak eraikinaren industria-erabilera, batetik, eta hiri-izaera, bestetik, isladatzen duten konposizio-ezaugarriak ditu-eta. Lerro horizontaletan antolatutako apaindura-material eta -irizpide desberdinak ditu eta aurretiko bisten goialdeko erremate gisa apaindura-leihoak ditu eta bi ezaugarri hauek etengabeko irizpide dira eraikitako perimetroan; alabaina, zabalunean barne hartzeko asmoaren ondoriozko ezaugarri nabarmen bat du: hiri-bilbeak berak sortzen dituen gune berezietan, fatxadaren hormatal jarraiak bira egiten duen guneetan (kantoietan alegia(erremate-dorretxoak ikus daitezke eta Arrikibar plazarantz fatxada-alde bereizgarria du.

Estalkia laua da eta argizulo handiak ditu, barne-zirkulaziorako kaleen gainean kokatuak, metalezko egitura batean inklinaturik dauden plano bidez ebatzita.

Eraikinak, alondegi gisa itxi zenetik, hainbat erabilera jaso ditu eta honek aldaketak eragin ditu eraikinaren jatorrizko konfigurazioan; nabarmenena, eraikinaren kanpoaldeari dagokionez, behe-oinean, Urkijo zuterativa modulación que se altera ligeramente en las zonas en que diversas necesidades de tipo funcional lo demandan. Las calles de circulación por el interior de las plantas baja y sótano, asociadas en vertical a grandes huecos de los forjados superiores para propiciar la iluminación del conjunto, crean zonas de ruptura de la trama estructural. La razón de ser de la misma, por tanto, hay que buscarla en la adaptación funcional al uso para la que fue proyectada, siendo éste, en consecuencia, un aspecto a considerar preferentemente en la valoración del edificio. La limpieza y contundencia de la estructura existente, no obstante, terminan por caracterizar espacialmente el interior del mismo.

Exteriormente, el edificio está dotado de una indudable monumentalidad y presenta condiciones evidentes para su consideración como elemento relevante, siendo la particular concepción de sus fachadas clave de la relación del edificio con el resto de la ciudad y factor determinante en la cualificación a realizar del mismo desde las más diversas ópticas. La valoración en cuanto a imagen exterior del edificio cabe realizarse desde dos niveles distintos, derivados de su relación con el entorno próximo y la materialidad de su asentamiento sobre el terreno, por un lado, y como unidad edificada dentro del conjunto de las del ensanche, por otro. El edificio muestra los imperativos que se desprenden de la resolución de su programa funcional, presentando, dentro de la homogeneidad de su imagen, soluciones matizadas en su planta baja a lo largo de todo el perímetro, en el encuentro con los viales circundantes en función de las cotas altimétricas de éstos y la necesidad de acceso al interior del edificio. En una visión más global ofrece una singular imagen que lo identifica claramente como edificio singular frente a los inmuebles circundantes, mayoritariamente residenciales, mediante la resolución de su fachada con determinados resortes compositivos que sugieren un uso industrial del edificio, por un lado, y muestran un carácter claramente urbano, por otro. La utilización de distintos materiales y criterios decorativos dispuestos en franjas horizontales y los ventanales ornamentados como remate superior de los alzados marcan un criterio constante en la cualificación de su perímetro construido, el cual presenta, no obstante, una nota de enfatización derivada de una condición sensible a su inserción en el ensanche: la utilización, precisamente en los puntos singulares creados por la propia trama urbana, de torreones de remate allí donde el paño continuo de fachada gira -las esquinas- configurándose, además, un frente característico hacia la plaza de Arriquibar.

La cubierta es plana y en ella se sitúan grandes lucernarios, ubicados sobre las calles de circulación interior, resueltos mediante planos inclinados sobre estructura metálica.

Los distintos usos acogidos en el edificio desde su cierre como alhóndiga han originado alteraciones en la configuración original del edificio; la más notable, en lo que al exterior del edificio se refiere, el rasgado de

markalerako fatxada-aldean, bi bao irekitzea izan da. Honen aurretik, zehaztu gabeko datan, erlaizean, goioineko leihoen aurrealdeen gailurren artean, kokatzen ziren errementaritza-erremateak bistako adreiluekin ordezkatu ziren eta honela, gailur hauen jatorrizko pertzepzioa, zeruan moztuak, aldatu egin zen eta murriztu egin zen lehen oineko hormatalaren konposizioaren berezitasuna, eraikinean material horrekin egindako elementu bakarra. Honez gain, fatxadako elementu desberdinetan kalte ugari sortu da, eraikinaren bizitzan gertatu diren jardun txikien ondorioz.

III. ERANSKINA

BILBAOKO UDAL ALONDEGIAREN ERAIKINAREN BABES-ERREGIMENA, MONUMENTU KALIFIKATU GISA

I. ATALBURUA
BABES-ERREGIMENAREN IZAERA

1. atala.– Babes-erregimenaren helburua.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12. atalaren arabera eta Bilbaoko Udal Alondegiaren eraikina monumentu kalifikatu gisa aitortzeko espedientearen hasieran oinarrituta, justifikatzen da honako babes-erregimen hau eta izaera loteslea izango du, aipatutako legearen 28.1. atalean eta 1992ko Lurzoruaren Legearen Testu Bateginaren 21. atalean aurreikusten den moduan, aplika daitezkeen plangintza-tresnek ondarea kontserbatzeko baldintza murriztaileagoak ezartzearen kaltetan izan gabe.

2. atala.– Aplikazio-eremua.

Babes-erregimena ondoko mugen barruan aplikatu ahal izango da: Iparraldean, Urkijo zumarkalearen ardatza Arrikibar plaza inguratzen duen kalearen ardatzarekin bat egiten duen gunetik Iparragirre kalearen ardatzarekin bat egiten duen gunera bitartean. Mendebaldean, Iparragirre kalearen ardatza, Urkijo zumarkalearen ardatzarekin bat egiten duen gunetik Fernandez del Campo kalearen ardatzarekin bat egiten duen gunera bitartean. Hegoaldean, Fernandez del Campo kalearen ardatza, Iparragirre kalearen ardatzarekin bat egiten duen gunetik Rekalde zumarkalearen ardatzarekin bat egiten duen gunera bitartean. Ekialdean, Rekalde zumarkalearen ardatza, Fernandez del Campo kalearen ardatzarekin bat egiten duen gunetik Arrikibar plaza inguratzen duen kalearen ardatzarekin bat egiten duen gunera bitartean. Iparmendebaldean, alondegiaren alakarekiko paralelo, Arrikibar plaza inguratzen duen kalearen ardatza, Urkijo zumarkalearen ardatzarekin bat egiten duen gunera bitartean.

dos huecos de planta baja en el frente a Alameda de Urquijo. Previamente, en fecha no determinada, los remates de herrería situados sobre la cornisa, entre las coronaciones de los frentes de ventanas de la planta superior, fueron sustituidos por paños de ladrillo cara vista que alteran la primitiva percepción de dichas coronaciones, recortadas sobre el cielo, y restan singularidad compositiva al lienzo de muro de primera planta, único elemento del edificio resuelto en ese mismo material. Existen, además, multitud de desperfectos puntuales en elementos de fachada derivados de pequeñas actuaciones habidas a lo largo de la vida del edificio.

ANEXO III

RÉGIMEN DE PROTECCIÓN DEL EDIFICIO DE LA ALHÓNDIGA MUNICIPAL DE BILBAO COMO MONUMENTO CALIFICADO

CAPÍTULO I:
CARACTER DEL REGIMEN DE PROTECCION

Artículo 1.– Objetivo del Régimen de Protección.

El presente Régimen de Protección tiene justificada su redacción según el Artículo 12 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, sobre Patrimonio Cultural Vasco, en base a la incoación de expediente para la declaración del edificio de la Alhóndiga Municipal de Bilbao como Monumento Calificado y tiene carácter vinculante, tal como se prevé en el Artículo 28.1 de la misma ley y en el Artículo 21 del Texto Refundido de la Ley del Suelo de 1992, sin perjuicio de que los instrumentos de planeamiento aplicables establezcan condiciones más restrictivas tendentes a la conservación del patrimonio.

Artículo 2.– Ámbito de aplicación.

El Régimen de Protección será de aplicación en la delimitación definida de la siguiente forma: por el Norte, el eje de la calle Alameda de Urquijo desde su encuentro con el eje de la calle que bordea la plaza de Arriquibar hasta su encuentro con el eje de la calle Iparraguirre. Por el Oeste, el eje de la calle Iparraguirre desde su encuentro con el eje de la calle Alameda de Urquijo hasta su encuentro con el eje de la calle Fernández del Campo. Por el Sur, el eje de la calle Fernández del Campo desde su encuentro con el eje de la calle Iparraguirre hasta su encuentro con el eje de la calle Alameda de Recalde. Por el Este, el eje de la calle Alameda de Recalde desde su encuentro con el eje de la calle Fernández del Campo hasta su encuentro con el eje de la calle que bordea la plaza de Arriquibar. Por el Noroeste, el eje de la calle que, discurriendo en paralelo al chaflán de la Alhóndiga, bordea la plaza de Arriquibar hasta su encuentro con el eje de la calle Alameda de Urquijo.

II. ATALBURUA
ERREGIMEN OROKORRA

3. atala.– Hiri-plangintza.

Babes-erregimen honetan barne hartzen den ondasunari aplika dakiokeen hiri-plangintzak arestian adierazitako Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 28.1. atalak aipatzen duen txostena bildu behar du eta bertan edozein esku-hartzeren, oin berrikoak barne, harmonizazio-maila barne hartu beharko du.

4. atala.– Preskripzio orokorrak.

1.– Monumentuan egin beharreko eraikuntza-mailako esku-hartzeek babes-erregimen honetan xedatutakoa bete beharko dute eta ezin izango da ez monumentua osorik, ez monumentuaren zati bat eraitsi; Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 36. atalean ezarritako baldintzetan izan ezik. Hau betetzen ez bada, derrigorrez leheneratu beharko da eraikina.

2.– Babes-erregimen honen pean dagoen ondasunaren jabeak Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 20 eta 35. atalek eta lurzoruaren erregimenari eta balorazioei buruzko 6/1998 Legearen 19. atalak ezartzen duten kontserbazio-, zaintza- eta babes-obligazioak bete beharko ditu. Babes-erregimen hau argitaratuta kontserbaziorako beharrezko baldintzak betetzen dira, Euskal Kultur Ondareari buruzko Legearen 36. atalaren 5. epigrafea aplikatzearren.

3.– Babes-erregimen honek biltzen dituen ondasun guztiak 7/1990 Legean aurreikusitakoaren menpe egongo dira, baimen, erabilera, jarduera, defentsa, zigor, arau-hauste eta gainerako alderdiei dagokienez.

5. atala.– Esku-hartzeko proiektuak.

Edozein esku-hartze burutu aurretik, bidezko proiektua egin beharko du goi-mailako arkitekto batek eta proposatzen den esku-hartzea baliagarria dela egiaztatzen duen proiektu honek ondoko dokumentazioa bildu beharko du gutxienez:

a) Gaur egungo egoeraren dokumentazio grafiko xehekatua, 1/50 eskalan oinetarako; fatxadak eta sekzioak, arkitektura-xehetasunak barne, 1/20 eskalan, paperean eta euskarri informatikoan; eraikinaren gaur egungo egoerari buruzko dokumentazio fotografiko osatua eta bideoa, kanpoaldekoa zein barruko espaziokoa; plano historikoak eta abar.

b) Eraikuntza-eta egitura-azterlana, kontserbazio-egoeraren analisia barne. Bertan, besteak beste, eraikina birgaitzeko obren garapenean (egitura erretikulatuan zein horma-sisteman(eragina izan dezaketen patologia desberdinen azterketa eta obra-prozesuaren barruan elementu desberdinak zaintzeko aurreikusten diren neurriak barne hartu beharko dira.

CAPÍTULO II
RÉGIMEN GENERAL

Artículo 3.– Planeamiento urbanístico.

El planeamiento urbanístico aplicable al bien incluido en el presente régimen de protección, requerirá el informe a que hace mención el anteriormente citado Artículo 28.1 de la Ley 7/1990, de 3 de julio de Patrimonio Cultural Vasco, el cual incluirá el grado de armonización de cualquier intervención incluidas las de nueva planta.

Artículo 4.– Prescripciones generales.

